



## ARALAR MENDIZERRA EZAGUTZEKO ETA DISFRUTATZEKO HAINBAT AUKERA 2020KO UDAN

*Laugarren urtez jarrian, Aralar mendizerrak, udan honetan, bisita eta jarduerak egiteko aukera ugari emango digu, ingurune natural zoragarri hau ezagutzeko parada emanez Jarduera programa honetan, nobedade bezala, Malloetako kableen inguruko erakustaldia izango dugu Araizko bailaran, bertan ere idiazabal gaztaren dastamena izango delarik. Itxasperriko baselizan (Arakil bailaran) izarren behaketa izango dugu eta Aralarko San Migel santutegian “astronomo ibiltaria” izango dugu laguntzaile zerua hobeto ezagutzeko. Eta, azkenik, Mendukiloko kobazulotan, bisita antzeztuak izango dira.*

2018ko azaroan, Aralarko San Migel Santutegiak, Aralar Elkartek, Sakana Garapen Agentziak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak, lankidetzarako akordioa sinatu zuten. Berez, Hitzarmenean bertan bil-tzen zen moduan, akordioaren helburu nagusia ondorengo zen: “sinatu duten erakundeen arteko lanki-detza iraunkorrerako marko bat egitea da, hortik erabilera publikoa sustatzen dituzten jarduerak eta politikak bultzatzeko asmoarekin”. Eta, horren azpitik, Aralarko balio naturalak, kulturalak eta historikoak sustatu eta babesteko helburua dago, turismo jasagarria (gizarte eta ingurumen arloetan), sentsibiliza-zioa eta ingurumen-heziketa gako nagusiak izanik.

Hori dela eta, laugarren urtez jarrian, Aralarrek oso jarduera-programa erakargarria eta polita eskaini-tzen du. Bertan, zonaldeko enpresen eskutik, Aralarreko mendizerraren natura eta kultura-balioak eza-gutzeko aukera paregabea izango dugu.

Sakana Garapen Agentziak, Aralar Elkartek eta Plazaola Partzuergo Turistikoak programa hau anto-latu eta finantzatu dute, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoarekin, batez ere, gure lurraldera bisi-tan etortzen direnak, hoiek ere gure zonaldea, helmuga turistiko bezala sustatu eta promozionatu deza-ten

### **Bisita gidatuak**

Bisiten helburua Aralarreko natura-balioak (paisaiak, habitatak, basoak, geologia eta hidrologia inter-pretatzea, fauna eta landare-espezieak identifikatzea, eta abar), bertako biztanleriaren erabilera eta usti-apen tradizionalak (artzaintza, baso-ustiapena, basa-fruituak, bertako produktuak, eta abar), etnografia eta kultura (giza aztarnak paisaian, megalitoak, monumentuak, ohiturak), ezagutaraztea da, baita natura eta ingurumen praktika onei esker zaintzea eta sentsibilizazioa sustatzea.



Etxarri Aranatzko haritz milurtekoak, Iribasko iturburua, Oderizko trikuharrien ibilbidea eta Aralarko paisaiak eta trikuharriak dira burutuko diren bisita gidatuak, 6 asteburuetan (10 bisita uztaila eta abuztuaren artean), guztiak Aralar mendizerra inguruan eskainiak.

Ibilbide guztiak “**MIRUA**”, **Actividades de Naturaleza**”-ren eskutik antolatu dira. Parte hartzeko **aurreinskripzioa** egin behar da (plaza murriztuak) hurrengo kontaktuetan: e-mail: **info@mirua.com** edo **608 560 369 telefonora** deituta. Helduek (10€) eta 14 urte baino gutxiagokoei (8€)

Izen emateen irekiera uztailaren 20tik aurrera. Izen ematea irteera bakoitzaren bezperako 17:00ak arte posible izango da.

### **Itxasperri eta Aralarko San Migelen izar behaketa:**

Azken urte hauetan izandako ekintzarik kuttunenetakoa Aralarko mendizerratik behaketa astronomikoa izan da. Aurtengo eskaintza bikoitza da:

- **Abuztuaren 22an:** Egiaurretako **Itxasperri** baseliza erromanikoan, astronomia tailerra egingo da. Leku hau aintzinako donejakue bideko ardatza bilakatu zen. Prezioa 10€ pertsonako (10 urtetik beherakoentzat, doan)

Zerua behatzeko jarduera teleskopio indartsuekin, dibulgatzaile astronomiko profesionalarekin. Ilargi hurbila ikusiko da gauaren hasieran. Jupiter eta Saturno planetak ere ikusi ahal izango dira, euren eraztun bereizgarriekin. Konstelazioez hitz egingo da, haien istorio mitologikoez, izarren laguntzaz orientatzea, eta askoz gehiago!

- **Iragarriko diren datetan:** (baldintza meteorologiko eta astronomikoen menpeko ekintzak): Aralarko San Migel santutegiaren inguruan “astronomo ibiltaria” izango da zeruaren sekretuak deskubrituz eta azalduz. Behaketa egunak 2 egun lehenago iragarriko dira.

Ekitaldi hau **Jon Teus**-ek ([www.observarelcielo.com](http://www.observarelcielo.com)) egingo du eta Itxasperi behaketa alde aurretik eskatu beharko da (plaza mugatuak), hurrengo helbideetan: **647 840 231** edota **info@observarelcielo.com**

### **Araitzko Gaintzan Kableen erakustaldia eta Idiazabal gazta dastaketa**

Aintzinean, Araitz, haran eder honetan, Maiotan biltzen zen mendi-soroetako belarra, baserrietara jeisteko erabiltzen zen kableen bidezko garraio sistema, sinbolikoki berreskuratu egin da eta aldizka erakustaldiak egiten dira gaur egunean ikus eta ezagutu dezagun arbasoek erabilitako garraio sistema bitxi hau. Baserrietako belar soroek, artaldeek, artzantzak eta Idiazabal gazta lanketa eta dastaketak, bi



bisita gidatu hauen mamia osatzen dute. Bisita gidatu hauek abuztuaren 9an, Gaintzan egingo dira. Lehenengo bisitan, ikus-entzunezko baten bidez Aritz haranaren aurkezpena egingo da, herrien ezau-garriak eta belarraren garraio sistema bitxiari buruzkoa izango da. Jarraian, kabletarainoko kilometro bat eta erdiko paseoa egingo da, bertan belak pilak jeitsiko dira kableen bidez. Bukatzeko, Aritzen ekoiztutako Idiazabal gazta dastaketa egingo da eta artzantza, baserrietan zein bordetan eginiko gaz-taren ekoizpenari buruzko azalpen interesgarriaz goza dezakegu.

Bi bisitak, aldez **aurreko erreserbatuak** izan behar dira (Osotara 40 lagun bakoitzeko) Erreser-ba; **Lekunberriko Turismo Bulegoan** tfno: 948 50 72 04 - [oit.lekunberri@navarra.es](mailto:oit.lekunberri@navarra.es)). Lehenengoa: 11:00etan (euskaraz) eta bigarrena 17:00etan (gaztelaniaz). Bi bisitatan ingelesezko azalpenak ere, behar ezker, emango dira. Prezioa 7€/pertsonako (3€ 14 urtetik beherakoentzat).

#### **Bisita antzeztuak Mendukilo leizean (Astitz – Larraun):**

**Mendukilo Leizea**, familientzat eta haurrentzat bisita egokia da. Kobazulo misteriotsu honetatik bisita antzeztua egingo dugu. Sorgin bati esker eta mapa baten laguntzarekin koban ezkutua dagoen altxorra aurki dezakegu. Bisita berezi honek, jokuaren bidez, haurrei esperientzia magikoa eskeintzen die, beldurrak uxatzeko eta ingurune paregabea ezagutzeko lagungarria baita.

Hemen ere, aldez aurreko erreserba egin behar da: (**948 396 095 / 608 623 604** telefonoetara deitzen edo [mendukilo@mendukilo.com](mailto:mendukilo@mendukilo.com) helbidean) Bisitek ordu bat irauten dute. Egingo diren egunak: uztailaren 25ean (gaztelaniaz), abuztuaren 8an (euskeraz) eta 22an (gaztelaniaz) eta irailaren 5ean (gaztelaniaz) eta 19an (euskeraz). Bisita bakoitzean 30 lagun egon daitezke (8€ helduendako, 6€ 4-10 urte artekoentzak, eta 7€ 11-17 urte artekoentzat)

#### **COVID\_19 neurriak eta Explora Sarea (Nafarroa Ezagutu Sarea).**

Ekitaldi eta ekintza guztietan COVID\_19 egoeraren aurrean beharrezkoak diren osasun, garbitasun eta prebentzio neurriak hartuko dira. Musukoa edo maskara eramatea komenigarria da. (Distantzia soziala mantentzen ez den ekitaldi guztietan beharrezkoa izango da). Explora Sareak, programa honen sustatzaile diren 3 erakunderekin batera -hiruak sareako parteideak baitira-, mendizerrako zenbait puntuetan zein baliabide desberdinetan ezarri ditu prebentziorako informazio kartelak.

Era berean, Nafarroa mailako sustatuko den proiektu zabalago baten barnean, Sarearen eskutik eta uda osoan zehar, “jasangarritasun-teknikoak” izango dira gure zonaldean. Hauek, lan ibiltari baten bidez, besteak beste, gure ingurura (Aralarko Mendizerra, Sakana, Plazaolako Bide Berdea, xendak, Mendukilo, Leitzalarrea, eta beste hainbat baliabideetara) hurbilduko diren bisitariei, laguntza eta aholku balio-



garriak emango dizkiete, ingurugiroari errespetua, jasangarritasuna eta jardunbide egokiak zabalduz, eta gure ingurua ezagutu eta disfrutatu dezaten sustatuz.

Aralar, 2020-VII-13